

Amaitu dira Arakako biltegietako interbentzioak



Hiruhileko honetan zehar, **AMVISAK** aurreikusita dauka **Arakako edateko uren araztegiaren ur biltegi berri bat amaitu eta martxan jartzea**. Obra horrekin, biltegiak biltegitratzeko daukan ahalmena berri eta handitzeko prozesua ixten da: hasieran, orain dela hamarkada bat eraiki zen biltegi bat indartu zen, eta, orain, azken hiru urteetan zehar, bi biltegi berri eraiki dira.

Biltegia 14 hilabeteko lanen ondoren inauguratuko da, eta 62 metroko diametroa eta 10 metroko altuera dauka, 30.000 m³ edateko ur hartzeko ahalmenarekin. Biltegi zaharreko zolataren gainean jaso da, erresistentzia eta estankotasuna bermatuko duten materialez eraiki da, eta hobekuntzak balbula gelara eta 800 m²-ko almatzen berri batera iristen dira, zeina kontagailuak, hodiak eta ordezeko beste pieza batzuk gordetzeko erabiliko baita. Obraren zenbatekoak 3 milioi euro gainditu ditu.

Obra horien ondoren, guztira 8 milioi inbertituta, Vitoria-Gasteizen biltegitratzeko ahalmena 105.000 m³-ra iritsiko da, hau da, hiriak neguan bi egunetan eta udan egun bat erdian kontsumitzen duena izango da.

Banaketa eta saneamendu sareak hobetzeko beste ekintza batzuk

- **Saneamendu ahalmena berritzea Senda Ibilbidea, Ramon y Cajal, Louis Heintz eta Adriano VI.a kaleetan.** Ur zikinen biltzaileak 1.000 eta 1.200 mm-ko diametroko hodi berriei ordezten ari dira, gaur egungo trazadura eta aldapa mantenduta. Obra ondoko kaleetara zabalduko dira eta urte bat iraungo dute. Ramon y Cajal kaleari dagokionez, hornidurako hodiak ere aldatuko dira. Aurreikusitako inbertsioa guztira 1.884.500 €-koa da (BEZa kanpo).

- **Hornidura eta saneamendua berritzea Oroime nerako Zentro - Espainiako Bankuaren ingurunean.** Olagibel, Agirre Lehendakari, San Frantzisko aldapa, Mateo de Moraza eta Gernikako Estatutu kaleei eragiten dien hirigintzako interbentzioaren parte da.

- **Hornidura eta saneamendu hodiak berritzea, euri uren sarearekin, BEI busa ezartzeko obrak aprobetxatuz.** Amadeo Garcia de Salazar plazako aparkaleku eta Zumakadi ibilbide inguruko interbentzioak hasi berri dira.

- **Tranbia Unibertsitatera iristeko obraren tranbiaren plataformak eragindako hornidura eta saneamendu hodiak ordezteak.** Jarduketa amaitu da.

Lankidetzaren proiektu bat saritu dute Perun

Peruko Uraren Agintaritzaren Nazionalak (ANA) **Peruko Uraren Kulturaren 2019ko Sari Nazionala** eman dio Landaguneko Hezkuntza Zerbitzuen elkarteari (**SER-Servicios Educativos Rurales**), "**Baliabide Hidrikoen Praktika Onen**" kategorian, Arabako Medicus Mundi GGKEarekin eta Vitoria-Gasteizko Udalararen eta AMVISAREN laguntzarekin egindako proiektu bategatik.

Proiektuaren bitartez, edateko uraren eta baino ekologikoen sistema bat eraiki da, Andeetako Patahuasi herri kitxuan 170 lagun baino gehiagori ur eskubidea

bermatzeko, eta herritarrei prestakuntza eman zaie hori erabiltzeko. Hain zuzen ere, herritarrek parte hartzeak, bereziki emakumeek, bermatuko du sistemaren iraunkortasuna.

Saritutako proiektuak 110.000 €-ko udal dirulaguntza bat eskuratu zuen. Gainerako 28.411 €-ak parte hartu duen herriak berak, Medicus Mundik, Lantarongo Udalak eta RPK S. Coop. enpresak eman zuten.

Proiektuaren laburpen bideoa:
<https://youtu.be/IJ7MQOKBeaM>



IRADOKIZUNEN BAT EGIN NAHI DIGUZU, EDO IRITZIA EMAN?

Posta elektronikoz egin dezakezu. Hauxe da helbidea: info@amvisa-futura.org